

## II ERANSKINA



**LEGAZPIKO ETORKIZUNERAKO  
KONFIGURAZIO PRINTZIOAK**

**IRAUNKORTASUNEAN:**

**AGENDA 21EN IKUSPUNTUTIK  
EGINDAKO GOGOETA**

### AURKIBIDEA:

- 1.KAPITULUA: SARRERA 3
  
- 2. KAPITULUA: LEGAZPIKO TOKIKO AGENDA 21-en PROZESUA 5
  
- 3. KAPITULUA: LEGAZPIKO KONFIGURAZIO PRINTZIPIOAK IRAUNKORTASUNEAN 8
  - 3.1 LANAREN METODOLOGIA 9
  - 3.2 IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZPENA: LEGAZPIKO UDALERRIAREN INGURUGIROAREN, GIZARTEAREN ETA EKONOMIAREN IKUSPUNTUTIK 11
  - 3.3 LEGAZPIKO ETORKIZUNERAKO KONFIGURAZIO PRINTZIPIOAK IRAUNKORTASUNEAN 21

### I. KAPITULUA: SARRERA

Garapen jasangarria lortzea, mende honetako udal ekintzen helburu nagusi gisa finkatu da eta egungo ingurugiro babesaren programa eta ikerketa guztietan presente dago.

Testuinguru honetan, Legazpi duela bi urte proiektu aitzindari eta berriztatzaile batetan sartu zen, IHOBek babestua. Honen helburua Legazpi "udalerrira iraukor" gisa bultzatzeko, ingurugiro aspektu, eta aspektu sozial eta ekonomikoak konfiguratzeko klabeak bilatzea zen. Prozesua, Tokiko Agenda 21aren prozesu garapenaren inguruko diagnostiko bat eginez hasi zen Legazpin (GPS 21 diagnostikoa). Lortutako emaitzeran oinarrituta, Tokiko Agenda 21 Legazpin (PIMAL Legazpi 21) prozesuaren bultzada plana egin zen, eta bertan 2007 urean zehar garatzeko hainbat ekimen barne hartzen ziren.

Lehenik eta behin, ikusi zen beharrezkoa zela TA21 Foroak egindako lana zentzu batekin eta funtzionamendu logika batekin hornitzea. Horretarako foroaren izaera eta funtzioak definitu ziren, beren hausnarketa eta proposamenetan oinarrituta.

Bigarrenik, iraukortasunaren 3 dimentsioak definitzeko prozesua hasi zen: ingurugiroa, ekonomikoa, eta soziala. Hiru dokumentu eginez bukatu zen, non dimentsio ezberdinen edukiak zehazten ziren.

Hirugarrenik, iraukortasunaren hiru dimentsioak edukiz osatzea bilatu zen Legazpiko errealitatea kontutan hartuz, eta izan behar ziren arlo nagusiak definitu, non ekin behar den etorkizuneko Legazpi iraukorrago bat bultzatzeko helburuarekin.

Prozesuak fase ezberdinak hartu ditu, eta etapa bakoitzean leku ezberdinak ireki ditu, azken helburuarekiko dugun distantzia laburtuz: oinarri iraukorrak dituela, Legazpi irizpide konfiguratzailerik batzuen gainean ezarri.

Ibilbidea eta egungo egoera ikusita, esan daiteke Legazpik badiutela baliabide eta aukerak beren beharrak asetuko dituen gizarte bat lortzeko, baina hurrengo belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe, legazpitarrak bere osotasunean kontutan hartuz.

Momentu hauetan, eta ibilbidearen zati txiki bat egin ostean, ziurtasunez esan daiteke garapen jasangarri baterako nahia, Legazpi Alaborgereko konpromesuen sinaketarekin eta Tokiko Agenda 21 prozesuaren konpromesu luze eta zail honekin bat datorrela. Legazpi, proiektu honetan inplikatzeko, Alaborgereko konpromesuekin bat datorren ekintza politika berria bultzatzeaz arduratu zen eta Legazpiko pertsona guztien beharretara, berdintasun, eraginkortasun eta iraunkortasun handiago bat bermatuko duena natur baliabideak erabiltzeko garaian eta efikazia, aurrezte eta arrazionalizazio handiagoa baliabide ekonomiko eta sozialekin.

Dokumentu honetan jasotako hausnarketen balio eta legitimitatea, Legazpin egiten ari den prozesuaren lorpen garrantzitsuenari zor zaio: partehartzea. Aurrera atera diren ekimen guztiak lan batzordeetan sortuak dira, non Legazpiko zenbait aktore esanguratsuek parte hartu duten: politikoak, udal teknikariak, Foroko partehartzaileak, LENBUReko ordezkariak, Uggasa, Gipuzkoako Ur Partzuergoa Urola Garaian, Legazpiko Merkataritza Elkartek, etab. Gainera, aurreikusita dago dokumentu hau Legazpiko Tokiko Agenda 21 Forora bidaltzea, beren iradokizunak eta ekarpenak biltzeko.

Dokumentuan zehar ikusiko dugun bezala, Legazpi, udalerrira iraunkor bat izateko, aurre egin behar dituen erronkak anitzak dira, baina hiritarrek lagundu duten moduari esker, eta udal kudeaketari onari esker garapen jasangarriari dagokionez, ez dira betiko erronkak ezta osatzen joan behar diren urgentziak ere. Legazpin, hausnarketa denbora egon da, prozesuaren sortze eta heldutasun epea, eta honek oinarri sendo batetan printzipio eta estrategiak formalizatzeko gaitasuna ematen du, Legazpiko errealitateari dohituta eta esperientzian oinarrituta, eta prozesuko aktoreei eta hauen beharrei guztiz zuzendua: legazpiarrek.

Ondorioek ez dute amaiera bokaziorik. Ondorio hauek hasierako puntuak dira, bertan oinarrituta udalerriri dituen arazo eta zailtasunei auzardiaz aurre egiteko. Zentzu honetan, arlo sozial, ingurugiro eta ekonomiko ezberdinetatik zabaltzen, zuzentzen eta aldatzen joan behar den dokumentu zabal gisa ulertzen da, modu honetan, hirugarren Tokiko Ekintza Planeko hasierako puntu izan dadin, eta udal kudeaketa hobetzeko elementuak aportatu ditzan.

Horrela, dokumentu hau Tokiko Agenda 21eko hausnarketa batetan du abiaburua, eta bere helburua iraunkortasunaren konpromesutik ateratzen diren proposamenak Legazpiko udalerrira proiektatzen saiatzea da.

### II. KAPITULUA: LEGAZPIKO TOKIKO AGENDA 21-en PROZESUA

Iraunkortasun mailan Legazpiko garapen printzipioetan zentratu baino lehen, Tokiko Agenda 21k udalerrian duen prozesuaren ibilbidean arreta jartzea merezi du.

Legazpi iraunkortasunerako bidea 1998an hasi zuen, Aalborgeko Karta eta Konpromesua sinatu zituenean, modu honetan, udalerraren aldetik zegoen herrien eta hirien garapen jasangarriaren aldeko konpromesua hartuz. Bi urte geroago, Legazpi Udaltalde 21 proiektu pilotoaren parte izatera pasa zen, -helburu gisa Tokiko Agenda 21aren ezartzea zuen udalerriz ezberdinez osatutako lantaldea- lantaldearen onurak aprobetxatuz. Udaltalde 21 proiektua Eusko Jaurlaritzaren programa baten barnean sartzen da, eta helburua euskal udalerriek ingurugiro mailan jarraiko hobekuntzak izatea da, Tokiko Agenda 21 oinarritzko tresnatzat hartuz. Legazpiz aparte, hauek dira Udaltalde 21 osatzen duten udalerriak: Audio, Amurrio, Azkoitia, Azpeitia, Zarautz, Basauri, Santurtzi eta Erandio.

Legazpiko diagnostikoa 2001ean egin zen Udaltalde 21 Pilotoaren lanmarkoaren barnean. Hau da analisiak hartzen duen -ikuspegi integratzaile eta transbertsal batekin- Legazpiren egoera, ahultasunak eta aukerak ikusteko; nahiz eta hasiera batean diagnostikoa ingurugiroarekin harremanetan egon, datu sozioekonomikoak kontutan hartu ziren eta amaierako dokumentua lehenengo Tokiko Agenda Planaren oinarri bezala balio izan zuen.

Urte berean, Legazpiko Udaletxeak Agenda 21en Hiritar Partehartzearen Foroaren sorrera bultzatu zuen. Foroa hasieratik partehartze bide finko eta kontsultibo gisa sortua izan zen; partehartzea hasieratik altua izan da eta alkatearen presentzia erregularra izaten du.

2002an Legazpi Udaltalde 21 Urola Garaiako kide izatera pasatu zen, Tokiko Agenda 21 Urola Garaiako udalerrietan bultzatzen duen bultzada eta dinamizazio lantaldea. Lantalde honen laguntzari, Foroko partehartze onari eta diagnostiko baten existentzia hurbilari esker, lehenengo Tokiko Ekintza Plana azkar ailegatu zen. 2002aren ekainean Legazpiko Tokiko Ekintza Plana itxuratuta gelditu zen, indarrean 2001etik 2004ra zuena, eta 111 ekintza eta 12 lerro estrategiko barne hartzen zituena.

Tokiko Ekintza Plana, Udal Ekintza Plana da epe labur eta ertainera definitua, eta eta Legazpiren kasuan, edukia, egindako diagnostikoa bezala, ingurugiroaren ingurukoa da gehienbat. 10 lerro estrategikoz osatua zegoen: ingurugiroko 10,

partehartze 1, eta ekonomiko 1. Gainera, 2001-2004 Tokiko Ekintza Planak 21 Agenda Eskolarra sustatzen zuen. Hau lehenbizikoz 2003.2004 kurtsoetan udalerriko 3 hezkuntza zentroetan ezarri zen. Agenda eskolarra ikasleei udalerriko ingurugiro hobekuntza prozesuetan partehartze beharraz ikustarazten saiatzen da. Agenda eskolarraren ezartzearekin batera, ikaleriak Erreka egunaren ospatzea bultzatu zuen, eta 2004tik urtero antolatzen den gauza da, ikastetxeen aldetik partehartze handia duena.

2002an Legazpi Udalsarea 21eko -iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sarea- fundatzaile izan zen, beren ekintza planak diseinatu eta onartu dituzten euskal udalerriek osatua. Helburu nagusietako bat udalerriei Agenda 21aren ezartzea erraztea da.

Ekintzen parte handi baten burutzeak, iraunkortasun mailan udalerriak izandako garapen positiboarekin batera, 2001-2003 Tokiko Ekintza Planak beste aurrerapauso bat ematea ahalbidetu zuen: 2005-2007 Legazpiko Ekintza Plana. Dokumentu berriak pauso berri bat ematen du kudeaketa markoan, eta ingurugiro gaietaz aparte, beste aspektu batzuk azpimarratzen ditu, ekintza soziala eta hazkunde ekonomikoa direnak. Bigarren Ekintza Planak 8 lerro estrategiko hartzen ditu: eduki sozio ekonomikoko 3, ingurugiroko 4, eta partehartze 1. LEP berria Garapen Jasangarrirako Batzordeak eta arlo ezberdinetako udal teknikariek egin zuten, Foroan kanalizatutako hiritarren laguntza, babes eta bultzadarekin batera.

Gainera, MUGI 21 tresna informatikoaren ezarpena sustatu zen, hau erabiltzen hasi zen lehen udalerria izanik. MUGI 21, udal ekintza planen garapen eta txertatzea hobeto jarraitzeko tresna da, eta baita urteko egiteko ekintzak programatzea errazteko modua.

8 urtetan lanean eta udalerriko iraunkortasuna hobetzeko esfortsuen ostean, 2006 urtea Legazpirentza errekonozimendu urtea izan zen. 2006eko azaroan, paper eta energia elektriko kontsumoa jaitsi zela egiaztatuta, Ekoscan ziurtagiria jaso zuen Legazpik, IHOBek emana. Arrasatekoarekin batera, ziurtagiria jasotzen lehenetariko udaletxea izan zen, ingurugiroaren emaitzetan izandako hobekuntzaren ondorio. Urte berebean, IHOBek baita "Buenas prácticas ambientales" europa mailako ziurtagiriarekin saritu zuen, "Avance de las Normas Subsidiarias" dokumentuan iraunkortasun irizpide eta helburuak barne hartzeagatik. 2006ko Asre Berdean EHOBek emandako sarietan, Legazpik aipamen berezia izan zuen Iraunkortasun irizpideekin Arau Ordezkoen Berrikuspen Partehartzaileagatik.

Zerbaitek ezaugarritu badu Legazpi iraunkortasunerantz egindako bidai honetan, momentu oro erakutsitako eta praktikan jarritako indarra izan da. Hasierako bultzada horrek proiektu aitzindarietan partehartzera bideratu du, gainera partehartze sozial on batez lagunduta egon da, modu honetan ereduzko prozesu sozial bat sortuaz, betiere iraunkortasun kontzientzia batera bideratuta, eta pertsonen, udalerrriaren eta ingurugiroaren ongizatera. Arrazoi honegatik, Legazpi arrakastarekin egin diren hainbat proiektu piloto egiteko proposatua izan da, industria hondakinak berreskuratzeko Biorremediazio teknologiaren erabilpena esaterako, Life BioSoil Proiektuaren barnean, edo Legazpiko argiztapenaren instalakuntzen analisisia argi kutsadura kontrolatzeko, Aranzadi-CADEMen proiektua. Legazpi gonbidatua izan zen beste proiektu piloto bat GPS21 Modeloa izan zen: EAEko agenda lokal 21en egoeraren diagnostiko tresna, non aurreko urtean garatutako ekimenak agertzen diren lehen azaldu dugun moduan.

### III. KAPITULUA: LEGAZPIKO KONFIGURAZIO PRINTZIPIOAK IRAUNKORTASUNEAN

Udalerri iraunkor baterako bidea luzea eta difusoa da, eta orokorrean, ez dago iraunkortasunaren kontzientzia, sozial edo instituzionala, egungo herri ereduaren iraunkortasun arazoei dagokionez. Legazpik, aldiz, bidearen zati handi bat egin du, zailena, hasierakoa. Dokumentu honetan zehar esan den moduan, Legazpik ondo sustraitutako ereduaren marraztea lortu du oinarri finkoen gainean: lokalak alde batetik, Legazpiko errealitatea; eta globalak bestetik, Aalborgeko konpromesua.

Legazpiko iraunkortasunaren konfigurazioaren gakoak ondo interpretatzeko, lehenengo dokumentuan agertzen diren hausnarketak lortzeko erabilitako metodologia ikusiko dugu; jarraian iraunkortasunaren hiru dimentsioak deskribatuko dira (ingurugiro, ekonomiko eta soziala) Legazpiko errealitatearen kasuan, eta amaitzeko, legazpiarrek eta udalerriek ekin behar dioten sei erronka handi marraztuko dira, udalerraren iraunkortasunaren aldeko bira bukatzeko asmoz dauden erronkak.

Ondorio hauek, azken urte honetan zehar egin diren lantaldeetatik atera dira, bilera bakoitzean iraunkortasunaren eta Legazpin aplikatzearen inguruko aspektuak zehaztuz.

### 3.1. Lanaren metodologia

Partehartze soziala askotan iraunkortasunaren arima gisa definitua izan da, eta aspektu honetan, Legazpiko udalerrian, hiritarrek badakite beraiek jokatu dezaketen rola ingurugiro erronketan orain eta etorkizunean funtsezkoa dela. Udallerri baten iraunkortasuna ez da soilik udalean kudeatutako aspektu teknikoetan oinarritzen, kontrakoa, pertsonen, beren esperientzia eta bizipenek aberastuta, ekarpenak beharrezkoak egin behar dituzte jarraipena eta irtenbideak bilatzeko garaian.

Arrazoi honegatik, lan metodologia partehartzean oinarrituta zegoen, eta Legazpiko agente esanguratsu ezberdinekin osatutako lantaldeetan elikatua izan zen.

**Iraunkortasunaren dimentsio soziala** definitzeko lan talde bat sortu zen. Hau birritan bildu zen, eta ondoren iraunkortasunaren definizio soziala hartzen duen dokumentua egin eta adostu zuen. Legazpiko Udaletxea hainbat teknikari, zinegotzi eta langile ordezkari bezala zituela, Legazpiko Udaltzaingoa eta Legazpiko polikiroldegia izan ziren egondako entitateak.

**Esparru ekonomikoan**, hasierako hausnarketa bat egin zen Legazpi Baiko talde promotorean, eta behin hausnarketa horiek jasota, beste talde batetara pasatu ziren iraunkortasunaren definizio ekonomikoa zuen dokumentua egin eta adostu zezaten. Legazpiko Udaletxeaz gain (teknikari, zinegotzi eta esku-hartzaile) egondako entitateak Legazpi Bai, Guisa (Urola Garaiko Industrialdea), GATC (Gabinete de Asistencia al Comercio), UGGASA eta ILINTI (Asociación de comerciantes de Legazpi) izan ziren.

**Iraunkortasunaren ingurugiro dimentsioaren** hausnarketa, alde zurretik existitzen zen Ingurugiro Batzordera eraman zen, non aparteko bilera batean dokumentua adostu zen. Legazpiko Udaletxeaz gain bere teknikari, zinegotzi, arkitekto eta aparejadorearekin, beste entitate batzuk egon ziren: Lenbur, Ingurugela-CEIDA de Brinkola, Uggasa, Sasietako Mankomunitatea, GOIMEN y Gipuzkoako Ur Partzuergoa Urola Garaian.

Behin iraunkortasunaren 3 dimentsioak definituta, aurreko hiru prozesuen emaitza modu transbertsalean batu eta jartzeko beharra ikusi zen, eta **Legazpiko iraunkortasunaren irizpide konfiguratzaileen txosten** bat egitea. Horretarako, bi aldi definitu ziren: hasierako momentu batetan, aurreko lantaldeetako 3 ordezkariarekin lantalde bat konfiguratuta zen. Lehenengo pausu honetan, Legazpiko iraunkortasunaren hiru dimentsioen entelekiak modu transbertsalean hartzen zituen dokumentua egin zen.

Ateratako dokumentu hau partehartzaile guztiei bueltatu zitzaien, zuzenketak eta zehaztasunen eransketen bidez prozesua bukatutzat emateko.

Bigarren zati batetan, bileran ateratako emaitzen gaineko hausnarketa egin ostean, Legazpiko udalerrian iraunkortasun konfigurazio irizpideen konfigurazio mapa bat egiteko helburuarekin sortu ziren faktore berretzaileak eta transbertsalak hartzeari ekin zitzaion.

### 3.2. Iraunkortasunaren adierazpena: Legazpiko udalerriaren ingurugiroaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspuntutik

#### 3.2.1. IRAUNKORTASUNAREN INGURUGIRO DIMENTSIONA

- Guztionak diren ondare naturalak eskuratzeko aukera babestea, gordetzea eta bermatzea.

##### ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN:

Batetik, Legazpin oso ondo baloratzen da **uraren kalitatea** eta arlo horretan Udalak bultzatzen dituen aldeko neurriak azpimarratu dira (adibidez, erreka garbitzea,...).

Hala ere, **basoa desagertu egin dela** adierazi da eta, gaur egun, herri inguruan pinudia besterik ez dago.

Eremu naturalei dagokienez, eremu horiek aisiarako eta jolaserako eremuak bihurtzeko joera handia dagoela esan da eta, horrek, azkenean, eremu naturalaren aurka doa. Bestetik, **zolatutako sarbideak** sortzen dira eta **eremu natural horietan** edonork du sarrera; hala ere, horrek kaltea besterik ez dio sortzen eremu natural horri.

Ondare naturalak zaintzeari dagokionez, birziklatzearekin lotura duen kexa bat mahai gaineratu da: hainbat produktu-motaren gainean ez **dago nahikoa informazio haien birziklatzeari buruz**, hala nola, pinturaren kasuan.

##### ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK:

- Patrizio Etxeberria enpresaren urtegia berreskuratzea eta bestelako erabilera bat ematea.
- Eremu naturalerako sarrerak mugatzea, jolas-parkeak bihur ez daitezten.
- Paisai tradizionalak berreskuratzeke formulak bilatzea eta, adibidez, pagadiak zaintzea eta/edo landatzeko laguntzak sustatzea.
- Ahal den tokian, eguzki-plakak ezar daitezela edo elektrizitatearen erabilera murrizteko neurriak har daitezela sustatzea.
- Produktu birziklagarrien sailkapenari buruz informazio handiagoa eskaintzea.

- Baliabideen erabilera zuhurra eta erainkorra hautatu, erraztu eta suspertzea eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorra sustatzea.

### ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN:

Gai honi dagokionez, **heziketaren** eta sentsibilizazioaren **garrantzia** azpimarratu da; arlo horretan ari dira lanean aspalditik Legazpiko tokiko agenda eta eskola-agenda. Hain zuzen ere, Eskola-agenda 21aren eskutik kontsumo arduratsua aztertuko da hurrengo ikasturtean.

Sentsibilizatuta egon arren, gero eta **hondakin gehiago sortzen dira** eta birziklatzea ez da nahikoa, **gutxiago kontsumitzearen aldeko apustua** egin beharra dago.

Birziklatzeari dagokionez, Sasieta mankomunitateak arlo horretan egin duen lana azpimarratu da.

### ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK:

- Kontsumo arduratsuagoa izan behar dugunaren aldeko kontzientzia hartzea bultzatzea; horrek, gutxiago kontsumitzea dakar berekin.
- Jokabide osasungarriak saritzea eta bultzatzea, jarrerak eta portaerak aldatzeko baliagarriak izan daitezten.
- Kontsumotik urrun dauden balore berrietan sentsibilizatzea, gizarte mailan jokabide iraunkorragoek prestigioa har dezaten.

□ **Eginkizun estrategikoa geure gain hartzea, hiria diseinatzekoan eta planifikatzerakoan.**

### ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN?:

Gai hau aztertzeko ezinbestean aztertu behar da **hirigunearen eta auzoen arteko mugikortasuna eta irisgarritasuna**: garrario publikoaren kasuan, herri barruko ibilbideak (auzoak-hirigunea) eta herrien arteko ibilbideak (Legazpi-beste udallerriak) kostu bera du eta hori oso gaizki baloratu da. Agian Udalaren eskumenetik kanpo dagoen gaia dela onartu da baina Udalak zentzugabekeria hori arintzeko zerbaitegin zezakeela aipatu da.

**Kalea oinezkoentzako** egokitzearena ondo ikusten da baina, hala ere, hainbat dendari kezkatuta daude eta, agian autoan joan ezingo direlako, bezeroak galdu ditzaketela uste dute.

### ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK:

- Autoaren kultura minimizatzea
- "Gomendatutako" aparkalekuak eskaintzea .... baina ez hirigunean, ingurunean baizik, herritarra auzoetatik hirigunera jaisteko autoa hartzea merezi ez duela konturatu dadin.

- Garraio publikorako bonuak sor daitezela sustatzea.
  - Legazpin kontsumitzeko bonuen erabilera sustatzea: “dendariak bonuak eskainiko dizkie bezeroei, aparkatzea merkeagoa izan dezan edo .....”.
  - Berdegune gehiago
  - Garraio publikoaren prezioak egokitzea, herri barruan auzoen eta hirigunearen arteko ibilbideetarako.
  - Bidegorriak ugaltzea.
- **Mugikortasun iraunkorraren ereduak tinko sustatzea.**

### ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN:

Azkeneko urteotan **garraio publikoa hobetu** egin dela egiaztatu da, baina oraindik gehiago hobetu daiteke.

Kexa bat mahai gaineratu da; izan ere, Gipuzkoako Aldundiko “**Bidai txartel bakarra**” ekimenaren barruan ez dakigu Legazpirekin eta Urola Garaiarekin zer gertatu den (Legazpi kanpoan geratu al da?; sartuko den azken herria izango al da?,....)

Zumarragan intermodala egiteko asmoa dagoela esan da eta Legazpin horretan sar daiteke. Gaur egun, **Zumarragara** joateko tren bat dago ordu oro eta ibilbide hori oso motza dela kontutan izanik (5 minutu), **zerbitzua maizago** eskain daitekeela uste du taldeak.

Hiriguneari dagokionez, auzoetako jendeak Legazpiko hirigunera **autoz** jaisteko ohitura duela ikusten da eta, ondorioz, hirigunea autoz beteta geratzen da. Gainera, “eskolako puntako orduetan” (haurrak eskolara sartu edo bertatik irteten direnean), puntu beltzak sortzen dira hiri-trafikoan, gurasoek haurrak autoan eramateko ohitura dutelako. Bestetik, **eskola-autobusa** dago eta autobusa handia geratzen da zerbitzu hori erabiltzen duten 5-6 haurrentzako.

### ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK:

- Gertu dauden herrietara (Zumarraga adibidez) joateko aukera areagotzea, garraio publikoa erabiltzeko aukera maizago eskainiz.
- Bidegorrirako sarbidea hobetzea eta sarrera hobeto seinalatzea, haren erabilera sustatuz.
- Hiriguneari bizikletaren erabilera bultzatzea.
- Legazpiko herritarrek barneratuta dituzten ohiturak (autoa sarritan beharrik gabe erabiltzen da) aldatzeko neurriak bilatzea. Batetik, aparkaleku gehiago egokitzea, kanpotik datorren jendearentzako; aparkalekuak hirigunetik kanpo egon beharko lirarteke. Bestetik, ordaintzen diren aparkalekuen prezioa igotzea, jendea leku guztietara autoarekin joan ez dadin.

- Eskola-autobus txikiagoa jartzea (erabiliko duen haur-kopurura egokituta)
- **Klimaren babeserako eta garapen iraunkorarentzako ardura orokorra geureganatzea.**

### **ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN:**

Gai hau ez zen aurreko bileretan landu izaera konplexua eta orokorra duelako; horregatik, Legazpin gaur eguneko egoerari buruzko diagnostikorik ezin da egin. Jarraian zehazten diren helburuak, lan taldeek iraunkortasuneko hiru eremuei buruz egindako definizio bileran sortutakoak dira.

### **ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK:**

- Aldaketa klimatikoa murrizteko ikuspuntu estrategikoa eta integratua garatzea eta jarraitzea, eta berotegi gasak
- Basogintza, nekazaritza, hondakin, kontsumo, garraio eta energia eremuko gure politiken nukleoan ingurugiro babes politika ezartzea.
- Kontzientziaztea handitu (informazio kanpainak eta jokaerak aldatzeko sentsibilizazioa bultzatu) klima aldaketaren eragin eta arrazaoei buruz eta klima aldaketaren politikan prebentziozko eta moldatze ekintzak bateratuz.
- Ingurugiro orokorrean gure eragina murriztu eta ingurugiroaren justiziaren printzipioa bultzatu.
- Ingurugiroari dagokionez iraunkorrakoak diren portaerak bultzatzeko arautegiak bultzatu.
- Ingurugiroari dagokionez iraunkorrakoak diren portaerak bultzatzeko fiskalitatea geureganatu.

### **3.2.2. IRAUNKORTASUNAREN DIMENSIO EKONOMIKOA**

- **Ingurumenarekin bateragarria izango den ekonomia dibertsifikatzea.**

### **ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN:**

Gai honi dagokionez, ekonomiaren dibertsifikazioa eskasa dela uste da; izan ere, tradizioz Legazpin **siderurgia** izan da jarduera nagusia. Horrezaz gain, badira beste jarduera nagusi batzuk –eta horietan oinarritzen da herriko ekonomia– baina jarduera horiek ez dira oso iraunkorrak.

Industria siderurgikoa da jarduera nagusia eta hortik kanpo urriak dira lan-aukerak eta merkataritza eta zerbitzu alorretan sekula ez da eskaintza handirik egon. Horrela, **merkataritza-jarduera** ahula da eta, bestetik, hiri-arkitektura ez da egokiena merkataritza-jarduera sustatzeko.

Gainera, **hirigunean baratzak** daude eta horietan saguak eta arratoiak eta bestelako animalia marraskariak pilatzen dira.

### ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK:

- Baratzak nolabait arautzea: lekuz aldatzea, arautzea eta garbitzea, haien jabegoa arautzea,... eta abar.
- Jarduera-mota horiei ekiteko leku bereziak sortzea.
- Herriko merkataritza espezializatua sustatzea.
- Batik bat kanpokoari zuzendutako merkataritza-jarduera handiagoa sustatuko duen oinezkoen gunek bat egokitzea.

### □ Jarduera ekonomikoetan ingurumen-irizpideak sartzea

### ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN:

Hauxe izan da taldean adierazi den lehen gauza: **ez dela udalerrian dagoen kutsaduraren egoera erreala ezagutzen**. Izan ere, noizbehinkako neurketak egiten dira (bi hilabetetan zehar) baina ez dira urte osoko neurketak egiten ez daudelako Eusko Jaurlaritzak ezarri behar dituen neurketa-kutzak. Taldeko kideek datu partzial horiek ematen duten baino kutsadura handiagoa dagoela uste dute.

Bestetik, iraganarekin alderatuz gero, **egoera asko hobetu dela** azaldu da eta herriko enpresa desberdinek (GSB, GKN eta Bereciartu) egin dituzten **inbertsioak** azpimarratu dira. Bide horretatik, Udalak alderdi horiek gehiago zaindu behar dituela eta enpresa guztiek dagokion irekitze-lizentzia izatea kontrolatu behar duela uste dute lantaldeko kideek.

Enpresariak **iraunkortasunarekiko sentiberatasuna** azaltzen dutela onartu zen eta gogora ekarri zen parte hartu zutela Tokiko Agenda 21eko Foroan enpresa-jarduera eta kutsadurarekin zerikusia duten gaiak aztertu zirenean. Modu berean, gaur egun oraindik ere enplegua sortzeak ingurumena errespetatzea baino pisu gehiago duela onartu da.

Azkenik, eztabaida garrantzitsua dago mahai gainean: nola **integratu azpiegitura inportanteen eraikitzea** (AHT, autobideak,...) pertsonen egunerokoarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin?

### ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK:

- Kutsadura eta lantegien isuriak neurtzeko eta zaintzeko sistemak hobetzea.
- Irekitze-lizentzien bidez, enpresen jardueren kontrola hobetzea.
- Enpresen kanpoaldean gaizki jarrita dauden hondakinen edukiontzia kontrolatzea.

### □ Enpleguaren kalitatea bultzatzea.

#### ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN:

Batetik, langabezia ez da arazo larria Legazpin, baina **lan kualifikatua eskasa da** eta goi mailako tituludunak zailtasunak dituzte lan-munduan sartzeko.

Kultura hedonistaren aldeko joera bat nabari da, batik bat emakumeengan; horrela, **emakumeek jasaten duten langabeziari aurre egitea zaila da**, ez dutelako edozein lan hartu gura, nahiz eta beraien ikasketarik ez izan. Aldiz, etorkinen langabeziari aurre egitea errazagoa da, haiek prest daudelako edozein lan egiteko.

Gaur egun **ikastaro eta prestakuntza-saio** ugari eskaintzen zaizkie kolektibo bereziei, hala nola, kualifikatu gabeei, emakumeei,... baina, hala ere, eskaintza horrek ez du talde horietan lan-kultura uztartzea lortzen.

Azken finean, eta Legazpin dagoen industria-jarduera mota kontutan izanik, bertako enpresetan gizonak dira langile gehienak eta emakumeek baino errazagoa dute horietan lana aurkitzea.

#### ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK:

- Enpresariei erakustea, 40 urtetik gorako emakumea pertsona egonkorra dela eta ez duela 25-35 urteko emakumeak izan dezakeen bizitza aldakorra. Horrelako kontratazioak bultzatzea enpresa txiki eta ertainetan eta enpresetan, oro har.
- Enpresari txikiak bere lan-eskaintza hobeto dezala bultzatzea.
- Besteren konturako lana osatuko duen autoenpleguaren eta jarduera berriei ekitearen aldeko kultura eta prestakuntza sustatzea.

### □ Herri. Merkatu iraunkorra sustatzea

#### ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN:

Hasteko, Legazpi ez dela merkataritza-gune erakargarria azpimarratu da eta **beste udalerritan kontsumitzeko ohitura** dago. Dendarien elkarteek urtero ekimen ugari proposatzen eta burutzen dituzte ohitura hori aldatzeko baina zaila egiten zaie.

Gainera, ostiraleko azokan, gero eta gutxiago saltzen dira bertako produktuak. Horrezaz gain, **lehen mailako sektoreak indar gutxi** duela esan daiteke; sektore

horretan ekoizten den ia dena norberaren kontsumorako da eta bertako lana aisialdizat hartzen da. Oso gutxi dira gaiak merkaturatzea helburu duten nekazaritzako ustiategiak.

### **ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK:**

- Norberaren kontsumorako eta aisialdiko baratzak arautzea, beste udalerritan erabiltzen ari diren parametroak erabiliz.
- Udalerrian bertan kontsumitzeko ohitura bultzatzea eta bidezko merkataritzaren aldeko ekimenak sustatzea.
- Bisitari/turista berriak izateko aukerak sustatzea, landetxeak eta natura eskainiz,....
- Enpresek erantzukizun sozialaren alde dituzten politikak aintzat hartuz, udalerrirako garrantzitsuak diren proiektuetan parte har dezatela sustatzea.

### **□ Udalaren kudeaketan iraunkortasun-irizpideak sartzea**

### **ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN:**

Udala iraunkortasunaren printzipioak erabiltzearen alde **sentsibilizatuta** dagoela antzematen da. Gainera, **EKOSCAN** programaren bidez, paperaren eta elektrizitatearen kontsumoa murriztea lortu da.

Bestetik, **jokabide ez iraunkorrak zigortzeko eta iraunkorrak saritzeko fiskalitatea** erabili beharra dagoela ikusten da. Baina, era berean, jarduketa-mota horiek aplikatzeko zailtasunak daudela onartu da.

Horrezaz gain, zorpetzera jo gabe, udal-kudeaketa egokia dela adierazi da.

### **ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK:**

- Energia aurrezteko politika udal instalazio guztietara zabaltzea: Kultur Etxea, ikastetxeak,....
- Alderdi horiek arautzeko jarraibideei arau-izaera ematea, irizpide pertsonaletan soilik gera ez daitezen.
- Iraunkortasun irizpide gehiago sartzeko ahalegina egin behar da, bai kantitateari dagokionez, bai izaerari dagokionez ( eremu sozialean eta ekonomikoan ere).
- Ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik, iraunkortasun irizpideak sartzen saiatu, eremuak diseinatzen direnean edota aktibitateak egiten direnean, aldi berean ingurugiro irizpideak kontutan hartuz.

- Herritarren jokabideak zigortzeko edo saritzeko fiskalitatea nola erabil daitekeen aztertzea; horretarako, beste tokitan ezartzen ari diren ekimenak azter daitezke.

### 3.2.3 IRAUNKORTASUNAREN DIMENTSIO SOZIALA

#### □ Pertsonen bizi-kalitatea garatzea

##### ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN:

Legazpiko udalerriko **bizi-kalitatea ona** dela esan da. Ondoko elementuak azpimarratu dira:

- Herri lasaia da. Haurrak lasai asko egon daitezke kalean.
- Osasun-zerbitzuen eskaintza (Osasun-zentroa, eskualdeko ospitalea gertu dago,...), gizarte-zerbitzuak, ...
- Udalerria kokatuta dagoen ingurune naturala.
- Herria landa-udalerria eta era berean hiri-udalerria da.
- Tamaina aproposa du.
- Langabezia-tasa txikia dago.
- Kontra, beste alderdi hauek ere aipatu dira:
- Herritar-talde espezifikoek arazo zehatzak, hala nola, mendekotasuna duten pertsonenak eta haien zaintzaileenak.
- Gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunak.
- Auzoetako ekipamenduak.
- Borondatezko lanetarako ez dagoela belaunaldien arteko erreleboa.
- Jarduerarik eta baliabiderik eza 16 urtetik gorako gazteentzat.

##### ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK:

- Gazteek etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezatela.
- Borondatezko lana sustatzea, gazteen artean batik bat.
- Lan-bizitzaren eta familia-bizitzaren arteko adiskidetzea.
- Legazpikoa izatearen harrotasuna eta identitatea berreskuratzea, baina era berean, kanpotik datozen pertsonen integrazioa ahalbidetuz.
- Baloreak aldatzearen alde egitea, IZATEARI EDUKITZEARI baino garrantzi handiagoa emanez.

### □ Gure herri-identitatea berreskuratzea eta zaintzea

#### ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN:

Identitateari dagokionez, sentimendu nagusia da herritarrek **ez dutela identitate zehatzik**. Ez daude zeinu adierazgarriak legazpiarrak identifikatzeko baina, era berean, ez daude legazpiarrak euren artean lotuko dituzten ezaugarriak.

Bestetik, ezaugarri horietako bat **Legazpiko euskara** izan zitekeela adierazi da baina hori galtzen ari da eta **galtzen ari da**, halaber, ahozko euskararen erabilera. Arlo horretan, Udalaz gain, lan asko egin dezakete ikastetxeek.

#### ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK:

- Ahozko euskararen erabilera bultzatzea
- Auzolanean lan egiteko ohitura zaharra berreskuratzea. Elkarrekin lan egiten ikasteko mezuak ematea, izan ere Legazpin tradizioz egin da auzolanean.
- Legazpiko antzinako ohitura eta tradizioak berreskuratzea.

### □ Herri-garapenaren etekinak Legazpiko herritar ororengana iritz daitezela lortzea eta horren ondorioa elkarren arteko desberdintasuna murriztea izan dadila lortzea (berdintasuna)

#### ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN:

**Desberdintasun**-mota desberdinak antzematen dira: generoaren araberakoa, desberdintasun ekonomikoak (ez oso nabariak), auzoen eta Legazpiko hirigunearen arteko desberdintasunak inbertsioei dagokienez, zerbitzuei dagokienez,.... eta abar.

Horrezaz gain, **gazteria ez da** arazoetan lehen bezala **inplikitzen** eta inplikitzen bada, beraien intereseko gaietan bakarrik hartzen du parte. Ondorioz, hainbat auzotan ez dago **belaunaldi arteko erreleboa** eta hori nabaria da esaterako San Ignazio auzoan, non auzokideen arteko elkarlana eta harremana garrantzitsua izan baita.

Dena den, gehien diskriminatzen eta zokoratzen duen arazoa, **etxebizitza eskuratzeko zailtasuna** da.

Bestetik, **arazoak daude hirigunearen eta auzoen artean**: auzokoak, arraziarekin edo gabe, hiriguneak beti lehentasuna izateaz kexu dira eta auzoetan inbertsioak egiterakoan, auzoen artean ere desberdintasunak daudela diote (auzo batzuetan asko eta beste batzuetan ezer ez).

Mahai gaineratu den beste gai bat, **auzolanean egiteko** ohitura galdu egin dela izan da.

### ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK?:

- Auzoetako kideek eta elkarteek aurkeztutako behar eta proposamenak koordinatzea eta sistematizatzea aurrekontuko partidetan, gero inork esan ez dezan, "aurrekontuak itxita daudela eta hurrengo urtean egingo dela". Frustrazioa ekidin.
- Bizilagunei udalerrian egiten diren inbertsioen berri ematea, leku batzutan besteetan baino gehiago inbertitzen ez dela ikusarazteko.
- Etorकिनak auzo zehatzetan pilatzeko joera saihestea, horietan ghettoak sor ez daitezen, Brinkola auzoan gertatzen ari den legez.

- **Mekanismo eta egitura desberdinak martxan jartzea, legazpiarrek eta udalerriko agente desberdinek (publikoak nahiz pribatuak) Legazpi udalerrira eraikitzen parte har dezaten (parte-hartzailea).**

### ZEIN DA EGOERA LEGAZPIN?:

Legazpin martxan dagoen **foroa** oso **modu onean baloratu** da: foro irekia da, sortzailea, eraikitzailea, kementsua, egiteko asko duena, heldua (hasieran herritarrek norberak bere arazoak ekartzen zituzten eta, orain, ikuspegi orokorragoa dakarte),....

Kontra, parte-hartzaileen kopuruari dagokionez, eskasa dela aipatu da eta **herriko elkartearen ordezkartzaren falta** sumatzen da. Batetik, belaunaldi arteko errelebo faltari egotzi zaio hori eta, bestetik, erakundetik sortutako edozein ekimenaren aurrean **gazteen parte-hartze eskasari**.

### ZEIN HELBURU DITU LEGAZPIK?:

- Komunikazioaren garrantzia azpimarratzea, haurren parte-hartzea bultzatzeko.
- Urola Telebistak foroan eta bestelako parte-hartze tresnen berri eman dezala: argazkiak, eztabaidatutako gaien laburpena,... baina ez bilerak erakutsiz, foroaren intimitatea eta konplizitatea gordetzeko.
- Auzolana bultzatzea, auzoetan bizilagunen konpromisoaren elementu eragile gisa.
- Bileretarako deialdiak egitean molde eta prozedura berriak bilatzea, edonorengana iristeko modua aurkitzeko: SMS, Internet, hizkera desberdinak,...

### 3.3. Legazpiko etorkizunerako konfigurazio printzipioak iraunkortasunean

Garapen Jasangarria gizakien bizitza moduan ematen den aldaketa prozesu progresiboa da, garapenaren ardatz eta sujetu gisa jartzen duena. Pertsonen protagonismo erreal baten gainean eraikitzen da, eta horregatik instituzio lokalek zuzentasun sozialean oinarritutako hazkunde ekonomikoa, ekoizpen industrialaren metodoen aldaketa, kontsumo pauten aldaketa iraunkortasuna bermatzeko, eta tolerantzian, elkartasunean, errespetuan eta berdintasunean oinarritutako bizimoduak eta baloreak bultzatu behar dituzte.

Udalerrri mailan garapen jasangarri bat eraikitzeko, Udaletxeak, partehartze foroetatik ateratako konponbideen bultzatzaile izan behar du, zuzenketa hauek ez baitira lege edo dekretuen bidez agertu, behetik gora baizik, udalerrian iraunkortasun printzipio bat frogatzen duena: pertsonen rol protagoniko baten dohikuntza.

Legazpik, garapenaren oinarritzko faktore bezala iraunkortasuna, ingurugiro gaia eta aspektu sozial eta ekonomikoekin duen bateragarritasuna, maila lokal eta globalean, epe labur eta luzean kontutan izaten jarraitu behar du. Iraunkortasuna, Legazpi udalerriko etorkizunaren lerro estrategikoak markatuko dituen erronka eta jomuga berrien oinarria izan behar du.

Jarraian aurkezten diren sei lerro estrategikoak, partehartze eta transbertsalitate prozesuen ondorio izan dira, eta ondorioz esan daiteke udalerriko garapen jasangarriaren bultzatzaileak legazpiarrak izan direla. Udalerrri jasangarri baterako garapenean zein da Legazpiren helburua?

- 1.- Legazpikoa izan eta sentitzera (IDENTITATEA)
- 2.- Legazpin lan egitera (GARAPEN EKONOMIKOA)
- 3.- Legazpin bizi eta mugitzera (HIRIGINTZA ETA MUGIKORTASUNA)
- 4.- Legazpin arnastera (GIRO NATURALA)
- 5.- Legazpin elkarbizitzera (HIRITARRAK)
- 6.- Legazpi bultzatzera (UDAL KUDEAKETA)

### 1. IDENTITATEA: Legazpikoa izan eta sentitu

#### HELBURUA

Udalerrri bat hiritar talde bat da, danei eragiten dieten arazoak konpondu behar dituen. Talde honetako kide sentitzen badira denak, zahar eta berriak, errazagoa izango da danon artean etorkizun bat marraztea. Arrazoi honegatik, helburua, legazpiar sentimenduaren berreskuratzea, bilatzea eta eratzea izan behar du, ezaugarritzen dituen ikur identitario propioak, espezifikoak eta partikularrak indartuz, tradizioa errespetatuz eta modernitateari ateak zabalduz.

#### HELBURU ZEHATZAK

- Legazpiko identitatea osatzen duten aspektuen inguruan hausnartu (burdina, naturaleza, Patricio Etxebarria, Auzolan, Euskara, etab.)
- Orintsuko Historia berreskuratu: ohiturak, tradizioak, eta legazpiko ohikuntzak.
- Joera sozial berriak integratzen dituen elementu identitario berriak bilatzea Legazpin.
- Legazpin eta legazpiarretan konfidantza eta poztasun sentimentua bultzatu eta mantentzea.
- Identitatearen sortze prozesuan, kolektibo guztien integrazioa bilatzea
- Identitatea komunikatu, sozializatu, eta kolektibatzea
- Euskeraren erabilera berreskuratu eta bultzatu Legazpin, ahozko lengoia bereziki.

#### AALBORG +10 KONPROMESUEKIN LOTURA

Helburu hau, Aalborgeko hurrengo konpromesuetan integratzen da:

- **9. konpromesua.** Gizarte Justizia eta Berdintasuna. *“Komunitate integratzaile eta solidarioak bermatzeko konprometitu gara”*

### 2. GARAPEN EKONOMIKOA: Legazpin lan egin

#### HELBURUA

Garapen Jasangarriaren jatorriak bi dira: baliabide naturalak mugatuak izatea (ur edangarria, basoak, elikagarriak,...) eta bukatzeko arriskua izatea, eta baita ere aktibitate ekonomikoaren hazkunde batek, ekonomiak sortzen duen irizpide bakarrean oinarria duena, ingurugiro arazo larriak sortzen dituela maila lokal eta globalean, etorkizunean atzeraezin buelta daitekeenak. Horregatik, Legazpiren helburua, **merkatuen eta industriaren erregukazio zehatzago baten alde egitea da, eta ekintza ekonomiko lokal bat sortu non ingurugiro baliabideak babesten diren eta kontsumo arduratsuaren premisa errespetatzen den.**

#### HELBURU ZEHATZAK

- Ekonomia lokal ezberdindu batetarako trantsizioa marraztu, esaterako, gutxiago industrializatutako industria bultzatuz.
- Legazpiko poluzio mailak modu zehatzean ezagutzeko emisioen neurketarako estrategien garapena.
- Ekonomia lokala berdiseinatu eta eraikitzea, legazpiarrek udalerriko produktuak kontsumitu ditzazten.
- Objektuen ordezkiz erbitzuen ekonomia bat garatzea ahalbidetzeko neurriak hartu, balioa sortzeko hondakinak sortu gabe edo energia gastua eta gastu fisikoa egon gabe: turismoa, landa-ostatuak, errestaurazioa, etab.
- Lanbide kualifikatuagoak ekarriko dituen prozesuak sortzea, gazteen hezkuntzari lotuta.
- Legazpin aktibitate berriak sortzeko eta pertsona ekintzaileak Legazpin geratzeko autoenplegu ekimenak indartzea.
- Lehen sektorea beharrezko ingurugiro irizpideetan ongi integratuta garatzeko pautak eta ereduak bilatzea: ureztatzea, ongari berriak, nekazaritza intentsiboa
- Kolektibo zehatzak (etorkin eta emakumeak) lan munduan sartzeko beharrei arreta jarri, udalerriko kolektibo ezberdinen arteko ezberdintasuna lausotzeko.
- Ekonomia ezberdindu eta Legazpi merkataritza handien masifikaziotik babesteko herriko merkataritza indartzea.

### AALBORG +10 KONPROMESUEKIN LOTURA

Helburu hau, Aalborgeko hurrengo konpromesuetan integratzen da:

- **8. konpromesua.** Ekonomia lokal bizia eta iraunkorra. *“Enplegua bultzatzen duen ekonomia lokal bat sortu eta bermatzera konprometitu gara, ingurugiroa kaltetzen ez duena.”*

### 3. HIRIGINTZA ETA MUGIKORTASUNA: Legazpin bizi eta mugitu

#### HELBURUA

Hiri eta herriek hasieratik desoreka arkitektoniko eta urbanistikoak dituzte iraunkortasunari modu ezkorrean eragiten diotena; mugikortasunaz gain, beren adierazpen motorizatuan, udalerriko krisi ekologikoaren nukleo gogorra dena. Udalerria aldiz, arazoak modu egokian eta modu integratuan eta iraunkorrean konpondu daitezkeen unitate txikiena da. Horregatik, Legazpiren helburua, alde batetik politika urbano guztietan iraunkortasunaren printzipioak integratzea da, lur emankorren desagertzea ekidinez, eta hesi arkitektonikoak kenduz, eta bestalde, mugikortasuna eraldatzea arrazionalizatuz eta Legazpiko ingurua osasungarriagoa eginez.

#### HELBURU ZEHATZAK

- Etxebizitza eskubidea bermatuko duen eraikuntzarako urbanizatutako lur eskaintza handiago bat bermatzea, hiritar guztientzat eta bereziki gazteentzat.
- Hiri zentroa bezala, auzoen hazkunde eta garapenerako indarrak biltzea eta neurriak bultzatzea.
- Lurralde garapen eta hirigintza iraunkorraren gaineko printzipioetan lur eta errekalifikazio udal politika eta ordenantzak finkatzea, ekintza urbanistiko iraunkorreu laguntzeari aldera.

- Hesi arkitektonikoak kendu arazo fisiko bat duten pertsonak erraztasun handiagoz mugitzeko eta bizitzeko.
- Obra publiko, etxebizitza eta ekipamentuetan, irizpide estetikoetaz gain iraunkortasun irizpideak bultzatzea.
- Mugikortasunean eragin gehien duten garraioak –ibilgailu pribatua- aldatzeko neurriak bilatu, garraio kolektiboan mesedetan (ibiltzeko espazioaren hustea ibilgailu kolektiboentzat lekua egoteko, garraio kolektiboaren geltoki eta terminalen hobekuntza eta baita ere ingurugiro kualitate eta kualitate sozialena).
- Garraio kolektiboaren sareak hobetu eta koordinatu, 3 aspektuetan: auzoak – zentroa; Legazpi – beste udalerriak; Legazpi – hiriburuak.
- Garraio publikoko ibilgailuek sortzen duten energia kontsumoa, emisio kutsakorrek eta zaratak murriztea.
- Motorrik gabeko mugikortasuna – oinez edo bizikletaz- garatzeko baldintzak sortzea: bidegorria seinalezatu, bidegorrira heltzea erraztatu, oinezkoentzat bideak egin
- Garraio pribatuaren gehiegizko erabilera murrizteko disuasio-neurriak sortzea: hiri zentro kanpoko parkinak, TAO...

### AALBORG +10 KONPROMESUEKIN LOTURA

Helburu hau, Aalborgeko hurrengo konpromesuetan integratzen da:

- **5. konpromesua.** Hiri siseinu eta planifikazioa *“Hiri diseinu eta planifikazioan paper estrategiko bat hartzera konprometitu gara, eta ingurugiro gaiak, gai sozialak, ekonomikoak, osasunarenak eta kulturalak ontasun amankomunerako bideratzea”*
- **6. konpromesua.** Mugikortasun hobea eta trafikoaren murriztea. “Garraio, osasun eta ingurugiroaren arteko interdependentzia onartzen dugu, eta mugikortasun iraunkorren ereduak bultzatzeko guztiz konprometituak gaude”

#### 4. HIRITARTASUNA: Legazpin elkarrekin bizi

##### HELBURUA

Pertsonak eta egungo eta etorkizuneko ongizatea dira dudarik gabe garapen guzti honen helburua. Edozein udalerrri eredu, azken finean, pertsonen bizitzan sortzen duen onuran neurtu behar da. Garapenaren efektuak sektore denetan izan behar da ikusgarria eta nabarmena, baina arreta gehiena gaitz gehien dituzten taldeetan jarri behar da, ongizate maila baxuagoa duten taldeetan. Horregatik, iraunkortasunaren ikuspegirako lerro nagusi bat hiritarrena da, hauek izan behar dute Legazpiko garapen jasangarriaren motorra. Lerro honek legazpitarrek betetzen duten papera azpimarratzen du, eskubide eta betebeharren sujetu diren heinean. Helburua, **geure balore iraunkor eta solidarioetan oinarritutako garapen berri bat hastea, eta amankomuneko etorkizun iraunkor bat eraikitzeko legazpiarren ahotsaren balorapena da.**

##### HELBURU ZEHATZAK

- Tolerantziarako hezitu: proiektu guztiak giza duintasunaren errespetuan eta gizakien integritatean oinarritu.
- Ardura, elkartasuna, berdintasuna, tolerantzia, partehartzea,... bezalako baloreen ezarpena indartzea
- Bakearen egonkortzerako eta demokraziaren praktikorako prozesuen garapenaren bidez, baloreak aldatzea.
- Urola TVk aldaketa eta egokitze prozesua babestu eta berrizteko horniketa informatibo eta Foroko prozesuaren emaitzen komunikazioaren bidez bultzatzea.
- Autokudeaketa, aisi alternatiboa eta horrelako mekanismo berriztatzaileen bidez gazteen partehartzea bultzatzea, haiek beren aisia antolatzeke helburuarekin.
- Gaitz gehien dituzten kolektiboen integrazioa bultzatzea, etorkinak esaterako.
- Egonkortutako elementu tradizional gisa auzolan lana berreskuratzea, komunitateko harremanak hobetzen dituelako.

- Erdigune eta auzoen arteko harremana indartu, lotura puntuak bilatuz eta desberdintasunak ekidinez.
- Ikasleengan ohitura ekologikoak, jarrera tolerante eta solidarioak eta sinetsitasun ekologikoa sortzeko, eskolekin batera proiektu eta jardunaldiak sortzea.

### AALBORG +10 KONPROMESUEKIN LOTURA

Helburu hau, Aalborgeko hurrengo konpromesuetan integratzen da:

- **9. konpromesua.** Berdintasuna eta Justizia Soziala. *“Komunitate integratzaile eta solidarioak bermatzera konprometitu gara”*
- **10. konpromesua.** Lokaletik globalera. *“Bake, justizia, berdintasun, garapen jasangarri eta klimaren babes globalaren ardura geure egitera konprometitu gara”*

### 5. INGURUGIRO NATURALA: Legazpi osasuntzua



#### HELBURUA

Hiri ingurugiroa, gizakiek beren izatea bermatuko duen giro naturala da. Jendea bizi den leku nagusia da, eta batzutan, hiri izate horrek izaera naturala gailendu du, ekosisteman modu ezkorrean eragiten duten baliabide naturalen bukaera, eta poluzioaren eta zaborren handitzea sortuz. Legazpik, ingurugiro natural pribilegiatu bat du, eta horregatik ingurugiroaren degradazioaren kontra egin behar du, baliabide naturalen erabilerako neurri iraunkorrak jarriaz, ingurugiroa errentabilizatzeko orduan kaltegarriak ez diren moduak bilatuz, eta gaintontsumoan oinarritzen den garapen eredu hau leunduz.

### HELURU ZEHATZAK

- Poluzio atmosferikoaren neurketa jarraia bultzatzea.
- Energia kontsumo maila jaitea
- Ondasun natural komunak babestu eta aisi zonaldeak bihurtutako zonalde naturaletan sarrera mugatu
- Gizartearengan iraunkortasunari lotutako baloreak indartu eta bultzatzea, kontsumoari lotuta doazen baloreen kaltetan
- Natur oreka babesteko ingurugiro naturala balioan jarri eta gure ingurugiroaren hondaketa ekidin.
- Haundikeria kultura gutxitu eta laztasun kultura baten alde egin
- Berziklapen kultura bultzatu, baina horretaz gain eta gehienbat, hondakinen gutxitzerako neurriak bultzatu.
- Energia alternatiboen erabilera bultzatu, energia tradizionalen ondorio ezkorrek lausotzeko helburuarekin.
- Denboraren ikuspegi azkarra eta azkar bizitzeko modua baztertu, bizitza kalitate lasaia jartzeko, eritmo biologiko eta giza harremani lagunduko diena.

### AALBORG +10 KONPROMESUEKIN LOTURA

Helburu hau, Aalborgeko hurrengo konpromesuetan integratzen da:

- **3. konpromesua.** Ondasun Natural Komunak. “Ondasun natural komunak babestu, mantendu eta hauekiko lortze berdintzaile bat bermatzeko gure ardurarekin konprometitu gara”
- **4. konpromesua.** Kontsumoa eta bizimodu arduratsuak. “*Baliabideen erabilera zuhur eta eraginkor bat hartzera konprometitu gara, baita kontsumo eta ekoizpen iraunkorra bultzatzera ere.*”
- **7. konpromesua.** Osasnerako Ekintza Lokala. “*Hiritarren osasun eta ongizatea babestea eta indartzera konprometitu gara*”

### 6. UDAL KUDEAKETA: Legazpi bultzatu

#### HELBURUA

Iraunkortasunaren erronkak gizarteko agente ezberdineen aldetik esfortsu garrantzitsua eskatzen du, zeinak ekiteko modu tradizionalen eraldaketan ikustarazi behar diren. Udaletxea, ekimen berrien sustatzaile, interes orokorraren defentsan arduradun eta jarreraren aldaketan eredu den lidergoa izan behar duenez, ingurugiro eta eremu ekonomiko eta sozialean ingurugiro irizpideen aplikazioarekin konprometitu behar da. **Helburua, kudeaketaren arlo guztietan iraunkortasun irizpideak sartu nahi dituzten ekimenak behin barneratuta, udalerrian iraunkortasunaren garapen zuzena kontrolatzea izango da eta munduaren aurrean Legazpi, udalerrri iraunkor gisa aurkeztea.**

#### HELBURU ZEHATZAK

- Erosketa publiko berdea bultzatu, eta merkatuaren gainean eragin, ondasun eta zerbitzu iraunkorragoak ekoiztu ditzaten.
- Sailen arteko transbertsalitatea bultzatu, ezagutza sektorialen mugikortasuna ahalbidetuz, ikuspuntu ezberdinak barne hartzen dituen ikusmoldeak lortzeko helburuarekin.
- Berziklaketa eta energia aurrezteko neurriak sortzea
- Ez zorpeketan oinarritutako udal kudeaketa formalizatzea
- Udaletxetik ateratzen diren arau, ordenantza, proklama eta adierazpen guztietan kode iraunkorrak sartzea.
- Udalerriko landa estetikaren optimizaziorako hiri ortuetako ekintzak arautzea ingurugiro betekizunak errespetatzea eta beren gainerakoek hiri inguruan sortu ditzazketen bidegabekeriak ekiditzea.
- Udal baimenak emateko orduan betekizunen gaineko kontrol zorrotza, bai zabalte baimenetan, baita ekintza baimenetan ere.
- Jarrera iraunkorrak saritzeko fiskalitatea erabili.
- Neurtze atmosferikoak egiteko bideak ezarri.
- Udalerrri iraunkorraren eredura bideratzen gaituen prozesuaren garapenerako beharrezko mekanismoak bultzatzea eta indartzea.

- Iraunkortasunaren arloan hasitako garapenak beren puntu maximoetara ailegatzeko gainerako agenteak bultzatzea eta inplikatzeta.
- Udal kudeaketako mekanismo laguntzaile gisa foroa bultzatu.

### AALBORG +10 KONPROMESUEKIN LOTURA

Helburu hau, Aalborgeko hurrengo konpromesuetan integratzen da:

- **1. konpromesua.** Gobernu formak. *“Kudeaketa programa eraginkorrek egitera konprometitu gara, diseinutik ebaluaziora, inplementaziotik pasatuz.”*
- **2. konpromesua.** Udal kudeaketa iraunkortasunerantz. *“Kudeaketa programa eraginkorrek egitera konprometitu gara, diseinutik ebaluaziora, inplementaziotik pasatuz.”*

Legazpiren etorkizuneko erronka konfiguratzaile hauek –iraunkortasunean oinarrituta- Tokiko Agenda 21 prozesu guztian zehar garatutako lantalde ezberdinetan sortu dira. Praktika, ekintza eta teoria hauek Legazpiko sujeto protagonistetatik atera direla azpimarratu beharra dago: legazpiarrak. Horregatik, hiritarrek eragin dezaketen prozesu baten gainean eraikita dagoenez, esan daiteke Legazpik helburutzat duen garapena iraunkorra dela. Hori da Legazpik duen punturik garrantzitsuena, ezagutza eta udalerriko helburuen eztabaida gardenaren bitartez iraunkortasunaren helburuak denon artean berformulatzeko bidea direla, eta egungo estandar eta normatibak berrikustea nahi berriei egokitzeko asmoz.

Iraunkortasun, egokitasun eta orekaren aldeko apostu hau, ingurugiro eta arlo ekonomiko eta sozialean aldaketa sakonik egin gabe ez litzateke posible izango. Iraunkortasuna lortzeko beharrezkoa den konplexutasuna eta bermoldaketen ugaritasuna dela eta, beharrezkotzat ikusi da Legazpiko udalerrian hiru dimentsio hauei buruzko eztabaida hau burutzea: ingurugiro, ekonomiko eta soziala. Saio hauetan sortutako gogoetak ez dira soluzio absoluto gisa aurkeztu Legazpiko garapen iraunkorra bideratzeko orduan, hiritarretik sortzen diren eta hauek hausnartuak izateko helburua duten hausnarketa zentzudun eta heldu gisa baizik, Legazpi udalerrira iraunkorrerantz garatzeko bidean hartuko dituen etorkizuneko pautak eta formulatarako aztertutako eta kontutan hartuak izango direnak.

Abagunea anitza eta konplexua da, bertan faktore askok eragiten dute eta horregatik honi aurre egiteko ikuspegi sakon eta integratzailea behar da. Interbentzio disziplinatua bat horretarako beharrezkoa da, eta aspektu honetan, Legazpiko iraunortasunaren aldeko eztabaida taldeetan egindako hausnarketek hirugarren Tokiko Ekintza Plan bat egiteko oinarria eta bultzada izan behar dute. Bere osaketa gomendio gisa hartuz eta prozesuan partehartzeagatik eta hurrengo belaunaldientzat gizarte hobeto eta iraunkorrago bat nahi izateagatik, Legazpiko hiritarreen sarian lagunduz.